

LE RÉCIT MYTHOLOGIQUE EN HAUTE-BIGORRE

Xavier Ravier. Collection “Parlers et cultures de France”. Edisud/Éditions du CNRS. Aix-en-Provence, 1986, 310 orr.

Ondoko lerroetan, laburtu nahi nuke ahahik eta fidelkien X. Ravierren azken liburu hau, iduritzen baitzait aski interesgarria dela Euskaldunontzat. Hain zuzen Goi-Bigorreko mitologiak egite handia duela Euskal Herrian ezaguna den mitologiarekin frogatzen du egileak. X. Ravier ez dateke ezezaguna gutartean: oroz gainetik dialektologo dela erran nezake, Gaskoin-Herriko atlasaren inkesta gehienak berak egin dituelakotz eta orai ari baita argitaratzen “Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc occidental” deitu obra erraldoia. Bainan laburtzera noan liburuan, dialektologiaren mugaz gaindi dabil, dudarik gabe, oro har antropologiaren alorrean sartzen baita.

Aintzin solasa

Lehenik, mitologiaren alderako interesa nola sortu zitzaion azaltzen digu X.R.-ek aintzin solasean. A.L.G.rako egin dituen inkesta dialektologiazkoak eragin handia izan dutela aitortzen du, bai eta ere Jean Séguy-k ulert-arazi diola zer harreman hertsiaik dauden hizkuntz-datoen eta inguru etno-kulturalaren artean.

Hastapenean, bildu dituenak izan dira bertako historian errotuak ziren kantu herrikoï zenbait (ikus *Poèmes chantés des Pyrénées gasconnes*, 1978, bainan 1959-ko lan baten bigarren bertsioa); geroago ipui mitologikoak ere bildu ditu Gèdre herrian (Troumouse eta Gavarnie ondoan). Gero bilketa zabaldu eta hedatu du Bigorre herrialde osoraino. Bildu dituen testuak 7 ataletan sailkatzen ditu X.R.ek.

1. Kultur-heroe bat; MULAT-BARBE deitu pertsonaiaren mitoa, eta MILLARIS-ena.

2. Kabalek atzeman edo ediren dituzten iturriei eta zaldarei buruzko tradizioak.

3. Munstro chthonienak (lurpean bizi direnak).

4. Melusina-ri buruzko tradizioak edo uretako damak.

5. Gizon basaren tradizioak (Basajauna).

6. Vizos herriko jiganteen tradizioak.

7. Beste iduripen zenbait hala nola hartza.

X.R.ek derabiltzan texto gehienak ahozkoak dira, bertako lekukoen ezpainenatik ixuri arau bilduak, lekukoei buruzko berri zehatza ematen duelarik. Badira beste zombait agerkerietan jadanik argitaratuak izan direnak. Gaskoinez edo frantsesez dira emanak izan.

Goi Bigorreko mugak aipatzen dizkigu agileak. Laburtzeko eman dezagun lauki batean sar ditekela hango eremua, laukiaren lau kantoinak, Lourdes, Bagnères, Gavarnie eta Troumouse izanki. Bi ibar badauzka, bata ttipiagoa, Aturrikoa (Baionatik iragaiten den uhaitz bera da) bestea haundiagoa Paueko Gabakoa, LAVEDAN deitu herrialdea osatzen duena, zazpi ibar ttipitan. Ibar ttipi bakoitzak mikroherrialde bat egiten du, baina X.R.ek dioenez, idazle gehienek deteminismo geografiko pobre baten izenean, hanitz exageratu dute beren arteko eta kanpokoekilako harremanikeza edo otarzia. (Ik. Cavaillès, de Froidour). Dialektometria baliatuz, herrien arteko distantzia linguistikoa baliatuz, bertako herrialden artean ez dela nehun agertzen bi eremu dialektalak badirela erakutsi lezakeen atari kritikorik, zoin nahi izanik ere bi herrialderen artean dauden mendi eta traba orografikoak.

Marko geografikoa utzirik eta textotarat itzuliz, X.R.ek dio texto hauek ikertuko direla *etnotexto* gisa. Etnotextoaren definizioa honela ematen du:

“Etnotextoaren bitartez ulert-arazi nahi dugu: ahozko textoak direnak, literarioak, ala ez, etnologia, historia edo linguistikaren aldetik balio dutenak. Baina etnotexto hitza aplikatu dakioke ere ahozko textuen idatzitako iturriei edo ahozko textoek ukan lezazketen idatzitako bertsioei, hala nola kantu-bildumak, edo kahierrak, sukalde errezeta-kahierrak, kontu-liburuak, gutuneria, etabar” (ikusten denez, alor hau aski zabala da).

Ondorioz, bere lana sartzen du X.R.ek linguistika antropologikoan alde batetik, eta bestaldetik errannahiaren ikerketan, bere oinarriko galdera hauxe baita: Pireneetako laborari-gizarteek bere mitoko zertarako dituzte? Lévi-Straussen eta Ricoeur-en artean izan zen eztabaida idekitzera doa egilea, ohart-araziz, ez dela nahikoa kontaktaren egitura logiko-formalaren ikerketa soilki egitea, ikertu behar direla ere mintzaira mailan eta diskurtso mailan zoin diren elementuak. Ricoeur-ekilako adostasuna azpimarratzen du X.R.-ek, mintzaira errotzen baita errealitatean funtzio bikoitz bati esker, erreferentzi-funtzioari esker, eta predikazio-funtzioari esker (erreferente = zeinu linguistikoa batek aipatzen duen linguistikaz kanpoko errealitate bat. Balitake ez existitzea. Predikazio = izaitze edo objektu bati tasunak ematea. “Belarri-motz”).

X. Ravierrek erakutsi nahi du zoin diren mitoaren ezaugarri berezigarriak, beste diskurtso-moten aldean (olerki, esaera, etabar). Frogatu nahi du mitoa “komunitate batek bere premuagoaz edo herentziaz jabe izaitzeko duen diskurtsoaz besterik ez dela”.

KORPUSA

Laburzki emanen ditut X.R.ren iturriak, izan daitezen berak mañetofonoz bildurik, ala jadanik Cordier, Bladé edo beste erudito zonbaitek argitaraturik. Entseatu naiz mito bakoitzaren inguruan diren bertsio desberdinen arteko sintesis baten egitera nahiz badakidan ezin dela izan oso fidela. Nahi duenak textoak berak zuzenki irakur ditzake.

1. MULAT-BARBE (konplikatuena, ilunena, aberatsena)

Mulat Barbe Gèdre-ko laborari da, 900 urthe badu (bederatziehun). Oso lur-irauldari ona da eta gaineko lurretan ere ogi edo gari ederra hel-arazten badaki untsa. Zazpi seme baditu. Egun batez, girstinoen erlisionea jiten ikusten du, gatz edo euri baten itxuran datorrena. Alta, bere kaxetatik altxatu gabe zazpi ogi-espal esteka liro. Bere igitai suian gori-arazten du eta harekin bere buruaz beste egiten du, igitai-ukaldi bat garkotxean emanez. Bere hil-harria jendeek hartu dute etxe baten bortagaineko harri gisa. Haren oinaren herexa ikus daiteke oraino harri batean. Bere ondokoak jiganteak dira.

2. MILLARIS, Lesponne herrian bildua

Millaris artzain da. Hil da elurra agertu delarik. Bere semeak elur-pilota egin eta zeruari buruz aurtikitzen du eta beko herrialdean erortzen da. Erori den lekuan berean Béliou-ko gurutzea deitu lekuan, Millaris ehortzi dute. Semea beherago joan da bere aziendekin elurrak ez dezan atzeman. Beliou-ko gurutzearen kontra zerbait egiteak ekartzen omen ditu ekaitza ta erauntsia.

Mito horri Arnaudin-ek kontatutako historia gehitzen dio, zointan oihan handi baten oroitzapena agertzen baita eta behi-arraza berri bat sortu dela aipatzen baita. Historio bertsua dakarte Bladé-k eta Cordier-ek, hunek euskaratik jalitako etimologia zonbait emaiten dituelarik. Eta agertzen da ere 18. mendeko olerki-kantu bat Millaris-i buruz.

3. ARTO-BELTZAREN ASMAKETA, Gèdre-n bildua

Harpe batean sartzen da zezen bat eta desagertzen. Berantago ateratzen da arto-beltza edo artomoroaren hazia ekarriz Españatik. Zaldare hori hedatzen da herrian.

4. BANHET iturriaren asmaketa

Ohartzen dira jendeak, Aturri ondoko iturri batetarat joaiteko usaia hartu duela ahari batek, hango urak sulfuroa dauka. Iturri gainean eliza bat eraikitzen da eta gero mainu-etxe bat. Bainan hurte batek edo elauso batek denak suntsitzen ditu.

5. ISABY-ko sugea

Alan ziren behi ta ardiak oro irensten ditu suge batek. “Et clôt det serpent” deitu leizean bizi da. Suian ingude haundi bat gori-arazi ondoan, irents-arazten dio arotz batek. Egarrria ezin itzaliz, Izaby-ko laku osoa edaten

du tanpez sugeak eta hiltzen da. Bere hezurretarik eliza bat egiten dute Ortiac hirian. Bainan hartaz geroztik harria ta ekaitza hain usu gertatzen dira nun deliberatzen den eliza horren barreatzea.

6. ARRODE-ko sugea

Neskatila bat sartzen da harpe batean; han ikusten du suge handi bat diru-ate handi bat begiratzen. Diru horren jabe izaitekotan neskatilak bete behar dituen hiru baldintzak emaiten dizkio sugeak; barurik jitea harperaino, biluzik egoitea sugea bere gorputzaren gainean ibiliko delarik, eta ixilik egoitea. Sugea haren gainean delarik oihuka hastenda neskatila. Sugea ta dirua, dena desagertzen da.

7. URETAKO ANDEREA

Laku edo aintzira batetarik jalgi den neskatila eder bat ikusten du artzain batek. Ezkontzen dira bainan “uretako anderea” hitzak ez ditzala sekulan aipa andereak hitz emanarazten dio senarrari. Bainan egun batez, samurtu eta, “uretako anderea” erraiten dio. Anderea desagertzen da. Gizon batzu joaiten dira haren bila bainan haren arra-itzultzeko barurik egon behar dira eta ustegabeen gizon batek barura hausten du. Geroztik, anderea ez da sekulan agertu.

8. GIZON BASA

“Eth home saubatje” aipatzen du Cordier-ek, Eskual-Herriko Basa-jaunarekin parekatzen duelarik. Lavedan herrialdean bizi da eta hark ere badaki metalaren soldura egiten. Egun batez, ohartu gabe, gizoneei salatzen die bere segetua.

9. VIZOZ-eko JIGANTEAK

Neurritz kanpoko gizakiak dira, harpe batean bizi direnak, eta gizonei ebatsitako abereetaz hazten direnak: aziendakia gordinik jaten dute. Horietarik zombait VIZOS herrikoak dira, izena dute “eths prasons, prousouz”, bainan jendeatarik aparte bizi dira. Batzuetan lurpetik ateratzen dira beren hezur lazgarriak.

I. Korpusaren ezaugarriak: BIGORREKO MITOAK, PIRINEETAKO MITOAK

Mito hauen sailkapen egitea ez da errexha hasteko eta bat uzta edo bilketa exhaustiborik ez baita egin izan. Bigorreko mitoen multzoa osatzen duten elementuak sailkatzera entseatu dira folkloristak. Hautatu dituzte erizpideak estetikoak izan dira, azalari ala mamari buruzkoak. Adibidez Bladé-k bereizten dituenak dira: ipui epikoak, kontaketa mistikoak, sineskeriak edo superztzio-neak, jendeen arteko ipuiak, kontaketa; gorago ikusi ditugun 9 ataletan sartzen ditu aldiz X.R.ek korpusaren elementuak, Mulat-Barbe-ren mitotik hasirik Vizos-eko jiganteen narradoradino. Bizkitartean ohart da X.R., elementu bera aurki ditakeela atal bat baino gehiagotan, hala nola:

— lehen elurra, kabale edirenzalea, leku sakratua, konjurazioa, barur frogagarria, suge-itxura.

Bereizketa handia ikusten du kultura/natura bikotearen arabera; alde batetik, kulturaren aldetik, laborantza, artzaingoa, zaldareak, herriak; bestalde, naturaren aldetik, sugeak, monstruak, erdi-animale erdi-gizaki diren izakiak.

Bigorretik urrun ez den Aran-eko aranean (eta barka pleonasmoa, adierazgarria baita) Bosost herri ondoko ipui bat aipatzen du X.R.ek. Ba omen da han ere Garos-eko jigante bat, egite handia duena Vizos-eko jiganteekin. Bestalde Aspe-ko ibarrean ezaguna da ere ekaitza igortzen duen JONA-GORRI deituta-ko izakia, Ahuñamendin bizi dena. Egite badu Millaris eta Mulat-Barberekin.

Aspetik urrun ez baita egungo Euskal Herria, Azkue eta Barandiaran etnografo euskaldunek bildu duten uzta jori eta mamitsutzat dauka X.R.ek. Frantses bertsioan zitatzen dituen ipuiak hauk dira:

Azkue-renak:

Elurra ta sorginak (EY II, 393) Goldaraz.
Arrestango jentil arria, EY II, 373.

Barandiaran-enak:

Jentilen amaiera	MPV, I, 45
Balengkaleku	MPV, I, 45-46
Odei-misteiozkoa	MPV, I, 46
Azken moroak	MPV, I, 46-47
Gentileen sukaldea	MPV, II, 82
Oroz-Olarteko jentilak	MPV, II, 82
Aranoko jentilak	MPV, II, 82

Sinoptiko batean, Bigorreko eta Eskual Herriko mitoetako pertsonaiak elgarren bete direla erakusten du egileak, xehetasun ttipi zombait bazter utzirik.

Basa jaunak ere jakitate bertsua badu Euskal Herrian eta Bigorren, kultura eta naturaren arteko zubia eginez. Gero Hartzari buruzko ipuinak ikertzen ditu X.R.ek, nahiz Euskal Herria ez duen aipatzen. Dirudienez, hartza gizona baizik ez da, bainan animaltasunean eroria (?). Aldiz lokarri sendoa ikusten du dudarik gabe Izaby-ko sugearen eta Euskal Herriko herensugearen artean. Berdin Bigorreko uretako andereen eta E. Herriko laminen artean.

Gaskoñako ordokietan Bladé-k eta Amaudin-ek bildutako ipuien arabera, iduri luke hango andereek badauzkatela atributo edo tasun zombait Bigorren eta Euskal Herrian andereek ez dutenak. Adibidez arotzak, uretako andere bati dio ebasten bere segetua eta ez Basajaunari.

Kapitulu hunen bukatzean, elementu amankomun hauk sailkatzen ditu X.R.ek:

1. Gertakari kosmiko eta oinarrizkoa.
2. Laborantza, landare, zaldare, teknikei buruzko jakitatea.
3. Naturazgaineko indar beldurgarrien hezialdia.
4. Naturazgaineko andrazko mundu bat.

Pentsatzekoa den bezala, elementu hauk gehienak munduan zehar jadanik jasoak eta zenbakituak izan direla ez du ukatzen X.R.ek; Aarne-Thompson-en sailkapena gogoan badu. Halere azpimarratu nahi duena da, elementu hauek nola lotuak diren elgarren artean multzo etnoliterario batean. Elementu berezi bakoitza baino, elementuen multzo berezia bera da interesatzen zaiona. Multzo horren piztuak konfirmatzen dio Akitanian badagoela bere nortasun berezia

duen kultur-eremu bat. Idei horren harian gehitzen du Mulat-Barbe-ren mitoa ez dela ezaguna Languedoc-eko mendietan.

II. BIGORREKO MITOAK ETA KULTUR-HISTORIO URRUNIKAKOAK

Hemen bilatzen da nuntik jiten den egite edo antza hori Bigorreko eta E.H.ko tradizio mitologikoen artean. Ez ote da etortzen Akitaniako eta Pirineetako eremuan izan den iraganaldi kultural zahar zahar batetarik?

Kapitulu hau osatua da Dumézil-en gerizapean. Aski argi frogatu du Dumézil-ek nola Caucase-ko OSSETES deitu populuak bildu dituen SCYTHES eta SARMATHES populuen herentzia linguistikoa eta kulturala. Kanpotikako indarrei ihardokitzeko harrigarriko kemenari esker, beren herri-hizkuntza eta herri-kultura mendeetan zehar bizirik iraun-arazirik. X.R.ek Pirineotan gauza bera gertatu zatekeela aditzera emaiten du: latinaz aurretikako patrimonio baten aztamak litezke Bigorreko mitoak. Bainan Bigorren hizkuntzaz aldatu da; Eskual Herrian, Ossetes-en herrian antzera, ez.

Hipotesis honen frogatzat dauka X.R.ek egiten duen ikerketa filologikoa *Mulat Barbe* izendapenaren inguruan etimologia bilatuz. Nahibada, *mulat* “mando” (fr. mulet)-tik jin liteke ezen Mulat ehortzia den lekua bera mando edo antzu baita. Bainan X.R.en ustez, *mulat* hitzaren semantismoa hauxe liteke: /margo iluna, ñabarra/. Hain zuzen, kontzeptu hori iduri luke aski pizua izan dela Akitaniako inskripzioe zaharretan: ASTO ILUNNO, AHERBELSTE, HERCULI, ILUNNO, BELEX, HARBELEX. *Barbe* hitzaren semantismoa berriz, hauxe liteke: /gizontasuna, pertsona, adina, aita, osaba/. Gainera, X.R.ek ohar-tarazten du Akitaniako jainko gehienak gizonezkoak direla eta ez andrazkoak. (Ulertzen da X.R.en pentsaeraren mugimendu implizittoa: *ilun* eta *beltz* hitzaren forma edo adierazlea desagertu da, adierazia ez: *mulat*).

Ikerketa bera darama *millaris* hitzarekin. *Millaris* toponimoa ezaguna da Ordesa-ko ibarrean, mila harriz estalitako leku batena izena baita, mendi kasko baten ondoan. Diotenez, hango artzain diru-gose eta maltzur bat laku batek irentsi ondean, laku zen tokian agertu da *Millaris* izeneko mendi-tini hua. *Harri* izena badatorke indoeuropeatarraz aintzinetikako KAR-R etimoitik. *ARIZES* izena, aski ezaguna dena hidronimian eta orografian, haren aldaki baizik ez bide da. Hain zuzen X.R. ari da pentsatzen Pic du Midi de Bigorreko izen zaharra eta “jatorra” ez ote den *ARIZES* bera.

Untsa litake, zeren eta Pic du Midi mendi inguruan baitaude justoki *Millaris*-en mitoa ezagutzen duten Lesponne-ko jendeen bortuak edo alapi-deak. Beste hipotesisa aipatzen badu ere (*vielh* = zahar) X.R.ek pentsatzen du *ARIZES* eta *MILLARIS* izenek ekuazio onomastikoa egiten dutela, mendikaskoak jainko bihurtuak izan direlarik.

Historiaren aldetik, iturriak bekan dira. Strabon-ek kontatzen du Pirineetako gizon zaharrek beren buruaz beste egiten zutela (*Mulat-Barbek bezala*). Cordier-ek ere azpimarkatzen du zoin zen jende zaharren egoera deitoragarria Euskal Herriko gizartean. X.R.ek, ber bidetik, ohart-arazten du Euskal Herrian indarrean dagoen primantza edo premugoa-ren antolaketa ezagutzen dela ere Ariège-n, Landesetan, Aure ta Barèges-ko ibarretan (cf. Poumarède, 1972) baita ere erdaraz “retrait lignager” deitzen den sistima. Azkenean eta Untermann-en lanetan oinarrituz, X.R.ek garbi dauka Akitaniak osatzen duela area antro-

poninimiko bar, Untermannek NAMENLANDSCHAFF izenaz emaiten duen definizioaren arabera: “Erranikako garai batean, erranikako eremu bateko jendeek erabiltzen ahal dituzten pertson-izenen multzoari esker bereizten den eremu geografikoa”.

III. GOI-BIGORREKO KONTAKETA MITOLOGIKOAREN EZAUGARRIAK, ETNOTEXTOEN ALDETIK

Etnoliteraturan ezagutzen dira, ipuinak, atsohitzak, ditxoak, eta beste mota hanitz. Hiru dira X.R.ek elgarri konparatu nahi dituenak: kontaketa mitologikoa, olerki kantatua, eta errituala.

Edozoin etnotextotaz erran daiteke gertakari bat dela hizkuntzaren mailan, ibilgailu bat dela kulturaren aldetik, eta azkenik datu sozial bat dela. Hiru maila hauetan gaindi ondoko galderak egiten ditu X.R.ek.

1. Hizkuntza-mailako gertakari gisa zoin semiotikari dagokio etnotextoa?
2. Datu kultural gisa, zoin informazio ekartzen du?
3. Datu sozial gisa, jakitate hori nola hedatzen da eta belaunaldiz belaunaldi iragaiten?

Ondotik olerki kantatuaren ezaugarriak emaiten ditu X.R.ek. “Olerki kantatua” izaiten ahal da edo epikoa, edo lirikoa, edo satirikoa. Importanteena textoa da, hitzen segida, eta neholaz ere doinua. Doinua bigarren mailerat igorria da, usu olerki zahar batena baizik ez da, bekan espreski asmatua. Textoaren abiapuntua gertakari historikoa da, erreala, objetiboa, erranikako leku batean iragana, maiz protagonista ezagunek obratua. Egilea da pertsona bat edo pertsona-talde bat da. Olerkia eragiten duen abiapuntutik haren textoaren ontzeraino, denbora-arte bat aski handia izaiten ohi da; hanitzetan oinarritzko gertakaria ber- antolatzen eta aldatzen da interpretazio bat jasanez. Olerki kantatuaren erabilera talde mugatu baten barnean mugatzen da. Bertsoen apaintzeko prozedura gehienetan ahozkoa da. Olerkiaren kreazonea produzio-leku berezietan egiten da. Olerki kantatuaren ezaugarri hoiei guziei esker, X.R.-ek dio etnoliteratura-mota hori ez ditakeela nahasi behar folklore orokorrarekin.

Olerki kantatuaren egiturak frangotan hiru atal ditu:

— Sarrera bat, aski esterotipatua, edo “captatio benevolentiae”: “Hurbil zaizte, lagunak, kantu berri baten entzutera...”

2. Olerkiaren gorputza; noiz nahi joaiten da estilo zuzenetik estilo zeharkakora.

3. Azken bertso bat, olerkia nork egina den nola ala hala salatzen duena.

Olerki kantatuaren hedabideak eta emaiteko lekuak lotuak zaizkio hazkuntzari, bortuko artzainen bilkureei, altxubideetako harremanei, ostatuei, herriko pestei, gehienetan gizonetzkoen arteko giroari.

Olerki kantatuaren ondotik, beste mota ikertzen du X.R.ek: errituala. Hemen ez naiz hortaz luzatuko. Erran dezadan Gèdre hirian egiten den hartz-ihiziak egite baduela Xiberoko maskaradaren erritualarekin.

Hirugarren literatur-mota da kontaketa mitologikoa. Zoin dira haren ezaugarriak? Haren egitura semiologikoa ez da hain tinkoa, aldakorragoa da, neurri handi batez hizlariaren gaitasunaren araberakoa da. Formula batez hasten da

hua ere, hala nola “lehengo xaharrer entzun dut” ustez eta zaharren lekukotasunak narrazioa egiaztatzen duen eta entzulea iraganaldi mitikoan sar-arazten duen. Hedabidea familiartekoa da. Inkesta-egileek ezagutzen dute osabaren eginkizuna, hanitzetan etxeko semeak, erran nahi baita, mutil zaharrak bait dira tradizio eta jakitate zaharren begirazole eta errailetarik hoberenak.

Hemen jauzi egiten dut X.R.ek idazten duen pasarte zail baten gainetik: semantikaren alorra eta semiotikaren alorra elgarri konparatzen baitditu. Erakusten du kontaketa mitologikoaren semiotika ahula dela, konparatzen delarik adibidez haur-formulen semiotika gogorarekin (Hala nola “anderekotagorri” ari buruzko formula aldagaitza).

IV. NATURA-GIROAREN JABE EGITETIK MITOAREN FUNZIONAMENDURA; ANALISIS SEMANTIKOA

Gèdre-ko bizilagunen artean Mulat-Barberen mitoaren eginkizuna eta tokia aztertu nahi ditu X.R.ek. Mitoaren bertsio bakar bat soilik ikertzea ez du egin nahi, baizik eta bertsio guziena; mitoa definitzen baitu bertsione guzien multzoak eta ez prototipotzat har laitekeen bertsio bakar batek.

Erakusten du mitoa aurkeztu dela segida kronologiko baten arabera eta elementu bakoitza egokitzen ahal zaiola mitema bati. Aldaezineko elementuak badira, eta bereziki Mulat-Barbe heroe hori laborari bat dela, leku tabou batean ehortzia dela. Aldiz giristinotasunaren agerraldia elementu aldakorra da.

Beraz mitoaren oinarrian, *kanbiamendu* baten kontaketa badago. Ba dago gertakariak aintzinekoa eta gertakariak geroztikakoa, antequam eta postquam. Mitoan ezinbestekoa da gertakari sakon baten agerraldia (ELIADE) maila kosmologikoan (elurra), maila sakratuan (erlisionea), gizarte-mailan (familia), eta natur-giroaren mailan (bortua uztea). Lau mail hauetan, mitosemema agertzen da: /haustura, behardura, moztura, epaia, ebakia/.

Moztura sakon hau kukutzen ahal dute metaforoek: gatzak giristinotasuna ordezkatzeko ahal du, igitaiak eriotza, gatzak berriro giza-hazia, tradizio diferentek elgar jotzen dutela medio. Moztura kosmologikoa adibidez (elurraren etorrera) nahasten ahal da erlisione-mozturarekin (girstinotasunaren etorrera). Hortik datorke, neurri handi batez, mitoaren aldakortasuna.

X.R.ek inportantzia emaiten dizkio Gèdre-ko gizarte-giroari eta bereziki artzaingoari eta bortuko bizimoduari, zeren eta haren ustez, beren kultur-ingurua inbeztitu nahi bait-dute Gedre-tarrek Mulat-Barberen mitoan, hain zuzen ofizio bereko den heroe baten inguruan. Heroe horrek badaki gaineko lurretan iraulden artzea, eta horrela iduri luke Gedretar gehienak sinbolizatzen dituela. Bestela erranez mitoa komunikabide bat litake gizarte bat bere buruaz bere buruari mintza dakion.

V. KONTZIENTZIA EKOLOGIKOA, MITOAK, BESTE ETNOLITERATUR-MOTAK

Beren kultura mito batean ber-inbeztitzekotz, egileak dio kontzientzi ekologikoa beharrezkoa dela. Engels, Evans-Pritchard, Reichel-Dematoff eta honen “giroaren ulerketa” kontzeptua baliatuz, X.R.ek erakusten du nolaz parteka-

tuak diren Gedretarren eremua eta denbora. Pekaldian, herria; gainekaldian, bortua; batetik bestera migrazio bat sasoi arau, bainan ibarretik sekulan jalgi gabe (Irakurleak barka nezala ez balinbadut hemen esplikatzan zergatik baliatzen dudan *bortu* hitza X.R.-ek yema eta *estive* deitzen dituenak itzultzeko).

Gaineko parteak, bortuak, ez du gizona herriak bezainbat behartzen, gizar-telegeen aldetik. X.R.ek aztertzen du etnoliteraturak zer dioen bi eremu dife-rente hauetaz, bortuaz eta herriaz.

Dirudienez eta bortuko bizimoduari dagokionez, etnoliteraturak aipatzen dituenak hauk dira: melankolia, kalamitate naturalak, basa-ihiziak, basa-landareak, aziendak, emazte ta ardiaren arteko konparaketa, ardura aipatzen delarik (eta abereekilako sexu-harremanak ere bai batzutan), bakartasunak ekartzen duen tristezia, enadura, spleen edo malenkonia hua, gizon bat baino gehiago deprezioaren zilora daramana.

Besterik da, etnoliteraturak herriaz dioena, hauxe azpimarratuz: seguritate, konforta, ongi janez eta edanez, eta ongi izaitea gorputzez nola izpirituz, maitearen ondoan egoitea, ostatua. Tona eta noku bakarra, gizar-tearen kozerzizioa, bortuan askoz lazatzenago dena.

Bi ikusmolde hauetatik ondorio bat ateratzen du X.R.-ek. Haren ustez eta grosso modo, artzaingoaren ixuria litake lirikotasunaren alderantz joaitea; laborantza aldiz mitoareen erresuma litake. Bide nabar, X.R.ek, Barandiaranekin batera, eta Maluquer de Motes bezalako batzurekin ados ez izanik ere, pentsatzen du artzaingoa zaharragoa dela laborantza baino eta aro megalitikoaren garaikoa dela guti gorabehera.

Denboraren aldetik, eta ez espazioaren aldetik, dudarik gabe, mitoak bizi-arazten duen denbora hura askoz urrundariagoa da, nahiz ber-inbertitua eta ber-aktualizatua den. Texto lirikoetan ordea, gertakarietako historia da aipatzen dena, beraz gutaz hurbilagoa, ez du oinarrizko fundamenik erakusten, egunoroztako gertakariak baizik. Mitoak Gedretarren laborantza argitan emaiten duelarik, itxura arketipiko baten inguruan, lirikotasuna aldiz norberaren jaidurei eta sendimenduei lotuago da, partzialagoa da. Mitoa denen interesei hurbilago bide da. Azkenik bi mota hauek, mitoak nola lirikoak irudipena eta erreala batzen dituzte.

VI. MITOAREN BESTE ALDERDI ZONBAIT:

Laburzki baizik tratatzen ez dudan kapitulu huntan, X.R.ek berriz aipatzen du etnotextoen balioa eta memoria kolektiboari buruz Baby-k, Dinguirard-ek eta Joutard-ek egindako lanak laudatzen ditu.

Etnotextoei itzuliz, literatura herrikoian beti ageri den fenomeno bat erakutsi nahi du, erran nahi baita textoetan aipatutako toki-izenek erreferentia zehatza badutela. Zehaztasun horri esker, toki-izen hoiek osatzen dute lekukoaren baitan egin den jakitateak emandako geografia mitiko bat. Hanitzetan jakitate horrek onomastika ber-interpretatzen du motibazio berri baten bitartez edo etimologia herrikoi delakoari esker. X.R.-ren adibidea Euskal Herrikoa da: Balenkaleku. Iduriz, Balenkaleku, megalito baten izena izaitetik, agurearen betazalaren altxatzeko baliatua izan den balenkaren lekua izaitera iragaiten da. Honelako motibazioek duten abantaila zera da: mitoa kokatzen dute mintzazalearen orainaldian eta ongi ezagutzen duen marko geografikoan.

Ardurenean ere, beste lokarri bat badago mitoaren protagonistaren eta mintzazaleak ongi ezagutzen dituen jende zenbaiten artean: pertsona hoiek, nola edo hala mitoaren protagonistarekin zerbait egitekorik dutenak, mintzazalearen askaziak, edo auzoak, lagunak, lagunak lagunak baitdira. Eta jakina da zoin inportantzi handia emaiten dioten laborariaren gizarteek familien arteko sare genealogikoa ongi ezagutzeari, indibidu bakoitzak besteen aldean bere burua nun daukan jakin nahi baitu.

Ondorioz, ikusten da mitoak badituela bide frango aktualizatua izaiteko, leku-izenen aldetik, toponimian eta geografian errotzen baita, eta protagonisten aldetik, familietan eta historian. Erro sendo horiei esker, mitoa bizitzen ahal da beti berderik.

AZKEN HITZA

Liburua azken galdera batez bukatzen du X.R.ek: erraiten ahal dea ba dela mitologia pirineotar bat? Ez du erantzun tinkorik emaiten iduritzen baitzaio ikertu duen mundua urratzen eta lehertzen ari dela, eta puska zenbait baizik ez dituela arrapatu. Aipatzen delarik memorio kolektibo famatu hua, X.R. dago ez ote den gaur askoz indartsuago ahantzatasun kolektiboa. Doinu pesimista duen konklusio hau eman ondoren, usaiako eskusak emaiten ditu, baliatu dituen zientzi desberdin guziak ezin bait zituen denak menperatu, bainan gehituz halere balio zuela mitoa ikertzea metodologia hau erabiliz, mitoaren barne-egitura eta ere inguru kulturala eta soziala aztertuz. Azken hitza lekukoenganat doa, eskerronez.

Ondotik badatoz nota zonbait, 180 titulu emaiten duen bibliografia, eta leku mitikoen argazkiak, denen artean ederrena delarik, ene iduriko, Pic du Midi-ko parean dagoen Béliou-ko gurutzea erakusten duena.

Ohar zenbait

Nahas-mahas horra zonbait ohar:

Bi huts ttipi behar dira zuzendu: Goldaraz (130 orr.) ez dago Araban baizik eta Nafarroan. San Miguel ere (142 orr.) Nafarroan dago.

Iduritzen zait Cerquand-en lanak tratatzea ona izanzen zela, bainan kurioski ez da batere aipatzen.

Basajaunari buruz emaiten duen azalpenean, egileak ez du basoa edo oihana bera aipatzen. *Basa* erraiten da oraino *salbaia* adierazteko eta *Seigneur sauvage* itzulpenaren ondoan eman daiteke *Seigneur de la forêt*. Ezin da ahantzi basoa ez dela nagusiki ez laborari ez eta artzainaren eremua, bainan bai bien artean izan diren aharra hanitzen iturbidea. *Laborari* ordez *Bas-herritar* bada-goela kontuan hartzekoa den uste dut bai eta ere basa-ren semantismo aski zabala.

Bestalde, egileak ez du egiten frantses folkloristen artean dauden korronteen aurkezpena. Saintyves, adibidez, ez da sartzen bibliografian, nahiz nota batean egileak aipatzen duen. Zoinnahi izanik ere egilearen ikusmoldea, ez dut ikusten zendako ez duen kontuan hartu, hala nola "Le folklore des eaux dans

la région pyrénéenne” konpilazioa, ikusiz X.R.en datuak konfirmatzen dituzten textoak ekartzen dituela obra hortan, adibidez Artousteko lakuari buruzkoa. Abere batek iturria atzemaiten dueneko narrazioa ezaguna da Planès, Formiguère eta Font-Romeu Kataluñako herrietan.

Azken ilabete hauetan, Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren inkestetan edo ene lan pertsonaletan bildutako beste narrazio zenbait gei dut argitaratzea. Badira heietan orai arte jaso izan ez direnak eta hain zuzen X.R.ek aipatzen dituenekin antza dutenak.

Azkenik erran dezadan laburpen hau egin dudala 1988-ko ekainean Udako Euskal Unibertsitateak Antropologiari buruz antolatu duen jardunaldietarako. Han Junes Casenave-Harrigileri entzun diot erraiten Basajaunak senditzen omen duela aintzinetik elurra jiten eta ihes egiten diola leku apaletarat joanez. Nago dato hau ez ote den lotu behar Mulat-Barberen mitoarekin.

Beste eztabaida luze batetarat eraman gintuzke beste puntu batek, alegia zehazteak zoin diren narrazioak ipuin direnak, iduritzen baitzait terminologia ez dela oraindikan oso betegarria. Alabainan, ba dira liburuan agertzen ez diren narrazio-motak beharbada ipui gisa kontsidera ditezkeenak, eta aldrebes, badira liburu huntan mitoaren ezaugarri gisa emanak direnak, segur aski beste narrazio askotan agertzen direnak.

Bukatzeko, eta ohar labur hauk bazter utzirik, garbi izan bedi irakurlearentzat Ravierren lana interes handikoa dela, nahiz ez den beti irakur-errea. Kontribuzio ederra da Akitaniako eta Euskal-Herriko kultur-historientzat.

X. Videgain
Baionan, 1988-6-30